



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila
39. zk. 2004ko Azaroa

ingurumena.net

Zure esku dago

IRAUNKORTASUNA

aintzat hartzen

DUTEN JAIK



LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

- **1. zk. 2000ko azaroa.** "Ingurumenean Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak egindako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa"
- **2. zk. 2001eko maiatza.** "2001eko Ekobarometro Soziala"
- **3. zk. 2001eko urria.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Diagnostikoaren Laburpena. 2001"
- **4. zk. 2002ko urtarrila.** "Garapen Iraunkorrerako Europako Batasunaren Estrategia"
- **5. zk. 2002ko otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa" (Laburpena)
- **6. zk. 2002ko apirila.** "Bizikletan, kerik gabeko hirietarantz"
- **7. zk. 2002ko maiatza.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material guztia. 2002ko BMG"
- **8. zk. 2002ko uztaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Garraioa eta Ingurumena. 2002ko BMG adierazleak"
- **9. zk. 2002ko abuztua.** "Sustainable Development in The Basque Country"
- **10. zk. 2002ko urria.** "2002ko Ingurumen Adierazleak"
- **11. zk. 2002ko azaroa.** "1990-2000ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Gasen Emisioen Inbentarioa"
- **12. zk. 2002ko azaroa.** "Ingurumena eta Lehiakortasuna Enpresan"
- **13. zk. 2002ko abendua.** "2002ko Ekobarometro Industrial"
- **14. zk. 2003ko urtarrila.** "Hiria, haurtzaroa eta mugikortasuna"
- **15. zk. 2003ko urtarrila.** "Klima Aldaketa"
- **16. zk. 2003ko urtarrila.** "Iraunkortasunerako hezea Eskolako Agenda 21: eskolarako gida" (IIHII)
- **17. zk. 2003ko otsaila.** "Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa"
- **18. zk. 2003ko otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Erreforma Fiskal Ekologikoa"
- **19. zk. 2003ko apirila.** "Johannesburgeko Garapen Iraunkorraren Munduko Goi Bileran"
- **20. zk. 2003ko maiatza.** "Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Iraunkortasun Adierazleak Kalkulatzeko Gida Metodologikoa. Tokiko Agenda 21eko Adierazleak"
- **21. zk. 2003ko maiatza.** "2003ko Ekoeraginkortasuna"
- **22. zk. 2003ko maiatza.** "Hiri Plangintzan Aplikatu beharreko Iraunkortasun Irizpideak"
- **23. zk. 2003ko uztaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Gasen Emisioen Inbentarioa (1990-2001)"
- **24. zk. 2003ko iraila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Energia eta Ingurumena. 2003"
- **25. zk. 2003ko uztaila.** "Zementu Sektorearen Ingurumen Ekarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Iraunkorrari (2003-2006)"
- **26. zk. 2003ko uztaila.** "Kimika Sektoreko Enpresen Ingurumen Ekarpena Garapen Iraunkorrari (2003-2006)"
- **27. zk. 2003ko urria.** "Altzairuaren Sektoreko Enpresen Ingurumen Ekarpena Garapen Iraunkorrari (2003-2006)"
- **28. zk. 2003ko azaroa.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleak. 2003"
- **29. zk. 2004ko otsaila.** "2002ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Gasen Emisioen Inbentarioa"
- **30. zk. 2004ko martxoa.** "2004ko Ekobarometro Soziala"
- **31. zk. 2004ko martxoa.** "Euskadi nire autorik gabe. 2003. Euskal Udalerrietako Mugikortasun Iraunkorrerantz"
- **32. zk. 2004ko ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Ekintza-planak martxan jartzeko gida"
- **33. zk. 2004ko ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Partehartzeko mekanismoak martxan jartzeko gida"
- **34. zk. 2004ko ekaina.** "Ore eta paperaren sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari. 2004-2006"
- **35. zk. 2004ko uztaila.** "Hondakin arriskutsuen kudeatzaileen sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari"
- **36. zk. 2004ko iraila.** "Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkorraren udal-planak egiteko gida praktikoa"
- **37. zk. 2004ko iraila.** "Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresen Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2204-2006)"
- **38. zk. 2004ko urria.** "Tokiko Agenda 21. Aurrera egiteko komunikatzea. Prozesuan komunikatzeko estrategien eskuliburua"
- **39. zk. 2004ko azaroa.** "Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak"

Argitaratzailea:

Gaztelaniazko 1. argitalpena, 2004ko urtarrila. Katalanezko 1. argitalpena 2001eko apirila

© Ajuntament de Barcelona

Sector de Serveis Urbans i Medi Ambient

Direcció de Participació i Educació Ambiental



Ajuntament de Barcelona

Euskal Herriko argitalpena:

Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa - IHOBE (Bartzelonako udalaren laguntza ezkertzen dugu)

Edukiak eta erredakzioa:

Marta Rubio Blanco (Institut de Ciència i Tecnologia Ambientals, UAB)

Paco Muñoz Gutiérrez (Servei de Prevenció i de Medi Ambient, UAB)

Diseinu grafikoa eta ilustrazioa:

Clic Trac, sccI

© IHOBE 2004

Lege Gordailua:

BI-XXXX-04

% 100 paper birziklatuan inprimatua

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilikako bitartekoa edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualearen eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.

Aurkibidea.....	3
Aurkezpena.....	4
<i>Gida irakurtzeko aholkuak</i>	5
Jaia sistema bat da! Nola funtzionatzen du?	6
Nolakoa da iraunkortasuna aintzat hartzen duen jaia?	6
Nork eta nola parte hartzen du jaietan?	8
Non ospatzen dira jaiak?.....	10
Jaietan iraunkortasuna aintzat hartzeko baliabideak eta azkartasuna	11
Jaietako ekonomia	11
Gizartearen parte-hartzea eta ingurumen-hezkuntza.....	12
Jaien ingurumen-inpaktua	13
Egiaztapenen zerrenda	14
Jaien adibideak: kasu praktikoak	16
Jaiak etxean! Haurren urtebetetzeak, dantzaldiak, Gabonak	17
Jaiak eskolan, jolas-zentroan, elkartean	19
Herriko, auzoko, kaleko... jai nagusia	22
Jaialdia, kontzertu jendetsua, ikuskizun-feriak	26
Glosarioa.....	31
Baliabide eta helbide baliagarriak	32
Web interesgarriak.....	33



Gizarte iraunkorreko eredu batera, alegia, ingurumena gehiago errespetatzen duen eta sozialki bidezkoagoa den gizartera, aldatzeak esan nahi du ingurumen-konpromiso zehatzak onartzea giza jardueraren eremu guztietan.

Jai asko ospatzen ditugu gure kulturari, eta, haien bidez, garrantzi pertsonaleko gertaerak ospatzen ditugu tradizioei jarraituz, edo taldeko sentimenduak adierazten ditugu. Eta une horietan eta leku horietan ere ingurumen-koherentzia berarekin jardun daiteke eta jardun behar da. Horrek esan nahi du lan egitea jaiari ahalik eta hondakin gutxien sortzeko, energia-baliabideak aurrezteko, poluzio atmosferikoko edo akustikoko faktoreak murrizteko edo istripu-arriskuak murrizteko.

Gida berri honen helburua da informazio, orientabide eta aholku baliagarriak ematea jaiak –urtebetetzeak lagun-taldeekin ospatzeko antolatutako jaietatik hasi eta makrokontzertuetara edo herriko jaietara arte– antolatzen dituzten edo haietan parte hartzen duten kolektibo, talde eta erakundeentzat (jolas-zentroak, eskolak, lagun-taldeak, erakundeak, administrazioak, enpresak). Gida, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko *Centre d'Estudis Ambientals eta Oficina de Seguretat i d'Higiene Ambiental*-ek egina Bartzelonako Udalerriantolatutako, Euskerara moldatu eta itzuli da, produktu berritzaile bat sortuz, eta, zalantzarik gabe, oso baliagarria herri eta hiri iraunkorrakoak lortzearen alde lan egiten dugunontzat.

Sabin Intxaurreaga

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua

Gida irakurtzeko aholkuak

Gidako kapituluak

Jaia sistema bat da! Nola funtzionatzen du?

Kapituluan jaien, parte-hartzaileen eta jai-barrutien diseinuaren deskribapen analitiko bat egiten da.

Jaietan iraunkortasuna aintzat hartzeko baliabideak eta azkartasuna kapituluaren edozein jai-motaren ingurumen-inpaktua murrizteko ideiak eta ingurumen-jarduerak finantzatzeko eta parte-hartzaileak sensibilizatzeko iradokizunak topatuko dituzue.

Jaien adibideak: kasu praktikoak, kapituluaren aholkuak ematen dizkizuegu edozein jaiari aplikatzeko: etxe-giroko jaiari, kontzertu jendetsuei, auzoko jaiari nahiz jai handiagoei.

Jaietako koloreak!

Gidako hiru koloreek esanahia dute.

- **Laranja** mugikortasuna eta garraio iraunkorra sustatzeko eta parte-hartzaileen segurtasuna eta ongizatea bermatzeko erabiltzen da.
- **Berdez** jaietan hondakin gutxiago sortzeko eta energia-kontsumoa minimizatzeko aholkuak ematen dira.
- **Lila** komunikazioko eta ingurumen-heziketako ekintzak egitearekin lotzen da.

Jaia gidako hari gidaria da. Begiratu ondo lehen orri honetan eta bilatu gidako kapituluetan. Aholku onak emango dizkizue!



Letra etzaneko hitzak glosarioan definituta daude.

Jaia sistema bat da! Nola funtzionatzen du?

Nolakoa da iraunkortasuna aintzat hartzen duen jaia?

Pentsa dezagun jai bat SISTEMA bat dela, energia sozialak baliabide materialekin **LEKU** eta **DENBORA** jakin batean elkartzen diren sistema bat.

Jaiei buruzko ideia zabaldu bat baztertu behar da; alegia, pertsonen inguruan duten eragina kontuan hartzen ez duten aparteko gertaerak diren ideia baztertu behar da. Dagoeneko ezin da esan **"egun bateko kontua da!"**.

Jaiek **LEKU** bat kontsumitzen dute, eta batzuetan lekua guztiz alda edo eralda dezakete desordenaren eta apaingarrien bidez. Eraldaketa horrekin leku hori ez ezagutzea lortu nahi da, leku desberdin eta original bat bihurtzea jaiko parte-hartzaileengan erreakzio baikorra eragitea errazteko.

Jaiek **DENBORA**-iraupen mugatua dute, baina denbora horretan askatasunaz gozaten dugu, gizarteratze- eta irudimen-dosi handiekin; baliteke eguneroko bizitzan askatasun hori ukatuta izatea.

Jaietan ingurumen-irizpideak sartu behar dira jaiak planifikatzen eta antolatzen hasten diren une beretik.

Kontsumo-gizarte batean, ospakizunak ondasun eta zerbitzuen kontsumo-maila handitzearekin lotzen dira.

Pertsonen harreman-prozesuak eta harmena areagotu egiten dira jaietan. Giro egokia sortzen da emandako mezuak parte-hartzaileek barnera ditzaten. Jaietan bizitako esperientziak, normalean, aldaketak eragiten dituzte parte-hartzaileen gizarteratzean.



Jaiek ingurumenean duten eragina:

Jaiek desordena eragiten dute, eta horrek eragin handia du ingurumenean, denbora eta leku oso mugatuan gertatzen baita:

Jai guztietan gertatzen dira honelakoak:


- Baliabideak eta energia kontsumitzen dira parte-hartzaileei ondasunak eta zerbitzuak emateko.
- Hondakinak, hondakin-urak eta atmosferarako isurpenak sortzen dira.

JAIAK giza baliabideez eta natur baliabideez hornitzen dira.

PERTSONAK jaiari parte hartu eta ospakizunean harremanetan egoten diren eragileak dira.

INGURUMENAK ematen ditu jaiak antolatzeko behar diren baliabideak eta energia.

JAI SISTEMAN hainbat motatako **INFORMAZIOA** sortzen eta zabaltzen da. Horrek eragina du eragilearen harremanetan eta eragileek jaiari prestatzeko, egiteko eta amaitzeko balaitutako baliabide naturalak eta energia erabiltzeko moduan ere.



Iraunkortasun-printzipioak jaietan:

Behin bakarrik erabiltzeko ontzien erabilera **murriztea**.

Hondakinak **berriro erabiltzea eta birziklatzea**.

Energia-baliabideak **aurrezte**.


Poluzio akustikoa **minimizatzea**.

Ingurumen-heziketa **sustatzea**.

Istripu-arriskua **saihestea**.

Jai-barrutiko irteerak eta sarrerak **aurreikustea**.

Jaira joateko eta jaitik itzultzeko garraiobide publikoa **sustatzea**.



Nork eta nola parte hartzen du jaietan?

Jaietan har daitezkeen eginkizunen zerrenda luzea erakutsiko dizuegu. Gertaera handietako joera da eginkizunak hainbat enpresa eta pertsonaren artean banatzea. Jai txikietan, ordea, pertsona berak har ditzake definitzen ditugun eginkizun bat, bi edo gehiago.

Erakunde sustatzaileak. Jaietan parte hartzen duten gainerako eragileen portaera arautzen dute. Beharrezkoa da *sustatzaileek* ingurumena errespetatzeko kontzientzia edukitzea, horiek sortzen baitituzte jaietan zabalitzen diren mezuak eta horiek erabakitzen baitute jaietan antolatzen diren baliabide-eta energia-mota erabiliko diren.

Jaiko gonbidatu, bertoratu edo parte-hartzaile aktiboak. Harremanak, dibertsioa eta sentzioak bizitzea bilatzen dute, gero gainerako gonbidatuekin sozializatzeko.

Ikuskizun-zerbitzuak. Musika-taldeak, orkestrak, DJak, txotxongiloak, kaleko animazioa, dantzataldeak, pailazoak, piroteknia, erraldoiak, etab. Jaiak animatzeaz arduratzen dira, eta, jendearen arreta erakartzen dutenez, *sustatzaileek* zabaldu nahi dituzten mezuen igoerle nagusi bihurtu daitezke. Jaiko baliabideen, energiaren eta, neurri txikiagoan, ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzaileak dira.

Edarien, janarien eta abarren hornitzaileak. Baliabideen eta energiaren kontsumitzaile handiak dira. Zuzenean erabiltzaileekin edo txikizkariekin (*postuak*) egon daitezke harremanetan. *Sustatzaileek* jaiko hornitzaileei ingurumena errespetatzeko irizpideak jarri behako lizkiekete. Irizpide horiek izango lirateke behin bakarrik erabiltzeko ontzien kontsumoa murriztea, itzultzeko ontziak eta birziklagarriak sustatzea eta bidezko merkataritzako produktuen alde egitea. Horien interes nagusia dirua da, baina, azkenaldian, erakusten duten markaren irudia zaintzen ere ahalegintzen dira.

Antolatzen den jai-motak asko baldintzatzen ditu jaietan antolatzen eta jaietan parte hartzen duten eragileak.



Parte-hartzaileentzako edariak eta janaria hornitzeko postuak:

Energiaren eta baliabideen kontsumitzaileak dira. Askotan hondakin-kantitate handia sortzen dute. Informatuta egon behar dute, eta jaia arautzen duten ingurumen-arauak betearazi behar zaizkie. Jairen ingurumen-politikaren komunikatzaile bikainak izan daitezke erabiltzaileentzat.

Instalazioak muntatzeko, mantentze-lanetarako eta lekua egokitzeko langileak:

Jaiko erabiltzaileei zerbitzuak hornitzea bermatzen dute. Eginkizun hori zerbitzu-enpresa batek edo gehiagok egin dezake, eta ingurumen-jarduerei buruz behar bezala informatuta egon behar dute eta lankidetzan nola aritu behar duten argi jakin behar dute.

Zerbitzu medikoak: Ospakizun handietan zerbitzu medikoek egon behar dute, eta garrantzitsua da agerian egotea.

Segurtasuneko, zaintzako eta zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzuak:

Garrantzitsua da zaintza- eta segurtasun-zerbitzuak zuzurrak izatea. Zirkulazioaren kontrolak, berriz, agerikoa izan behar du, jaiko irteeretan eta sarreretan oztoporik egon ez dadin, ez jendearentzat ez zerbitzuentzat.

Erakunde babesleak: Interes nagusia zabaldu nahi dituzten produktuak edo mezuak jaiko parte-hartzaileek ondo hartzea eta bereganatzea da.

Jaia aniztasun handiko sistema da, parte hartzen duten eragile-kopuruari eta motari dagokionez.

Auzokoak: Nahi ez dituzten efektuak paira ditzakete (zarata, zaborra, desordena, zirkulazio-mozketak...). Normalean auzokoek jaia ez dute begi onez ikusten, eta ez egitea edo sortzen dituen oztopoak murriztea nahi izaten dute.

Administrazio publikoak: Parte-hartzaileek jaiaz gozatzea, auzokideek trabarik ez izatea eta ingurunean kalterik ez eragitea izaten dute helburu.



Non ospatzen dira jaiak?

Gomendio hauek, batez ere, jai ertainetarako eta handietarako dira, baina jai txikietarako ere balio dute.

Garraio publikoan joateko erraztasuna

Jaia ospatzeko lekua erabakitzean, kontuan eduki behar da jai-barrutira garraio publikoko sarea erabiliz joateko aukera dagoen ala ez, bai jaiak irauten duen denboran eta bai jaia amaitu eta hurrengo orduetan. Iragarri automobil pribatua hartzea baztertzeko neurri batzuk; adibidez, aparkatzeko leku mugatua dagoela.

Arriskuguneak detektatzea


Lekua aurrez aztertzea oso lagungarria izan daiteke istripuak gertatzeko arrisku gehiago dagoen puntu gatazkatsuak detektatzeko: arkitektura-oztopoak, lurzoruko altuera-desberdintasuna, gainazal labainak, etab.

Puntu gatazkatsu horiek konpontzeko behar diren neurriak hartu beharko dituzue.

Banatu eremutan jai-barrutia

Diseinatu jai-barrutiaren *zoning*-a. Gogoratu "leku bat gauza bakoitzarentzat eta gauza bakoitza bere lekuan" esaera eta egokitu jaiaren testuingurura. Esleitu leku bat zerbitzu bakoitzari eta prestatu sarbide mugatuko eremuak.


Parte-hartzaileek eta antolatzaileek zerbitzu guztietara egingo dituzten ibilbideetan ahalik eta gutxien gurutzatzen saiatu behar da. Kasu horietarako, garrantzitsua da larrialdi-egoerak eta ebakuazio-bideak aurreikustea.



Jaietan iraunkortasuna aintzat hartzeko baliabideak eta azkartasuna

Jaietako ekonomia

Iraunkortasuna aintzat hartzen duen jaiak ez du zertan jai garestiagoa izan. Hurrengo gomendio batzuei jarraitzen badiezue, ingurumen-jarduera asko kudeaketa ekonomiko ona bermatuz finantzatu ahal izango dituzue.



Jaiko parte-hartzaileak prest egongo dira gehiago ordaintzeko jaiaren kalitatea hobetuko duten ingurumen-zerbitzuak eskaintzen badizkiezue.

eta produktu ekologikoagoak sustatzeko bideratuta egiten bada, emaitza positiboak lortuko dira, seguru.

Administrazio publikoek lagun diezazuekete

Administrazio publikoek jaia ahalik eta jende gutxienek gaitzestea nahi dute. Administrazioei, besteak beste, honako laguntza hauek eska diezazkiekezue: diru-laguntzak, garbitzaileak, boluntario-taldeak eta gaikako bilketak egiteko eta garraiatzeko tresnak.

Hornitzaileekin negoziatzea

Edari-hornitzaile handientzat jaiak negozioa dira. Edari-marka baten eskusibitatea ondo negoziatzen bada, zerbitzu batzuk finantza ditzakete eta ingurumen-eskakizun batzuk onar ditzakete.

Edariak presiopean ontziratzea edo *berriz erabiltzeko edalontzia* sustatzea negoziatzeko elementuak izan daitezke. Beste modu batera ere egin daiteke presioa, adibidez, esanez produktu ekologikoak saltzen dituzten beste enpresa batzuek ingurumen-kalitatea bermatzen duten bereizgarriak dituztela edo berriz erabiltzeko ontziak edo erraz birzikla daitezkeenak erabiltzen dituztela.

Batzuetan elkarre edo kolektiboen *postuetan* banatzen dute parte-hartzaileentzako edaria eta janaria. Ingurumen-ekimenak finantzatzeko modua izan daiteke *postu* horiek ordaintzen duten tasaren zati bat beraiek finantzatzeko erabiltzea.

Sustatzaileek eskumena dute ontzi-mota jakin bat eskatzeko eta jaiari zer produktu solido mota erabiltzeko zehazteko. Hori hondakinak murrizteko

Ingurumena babestea

Jaietan ingurumena babestea oso ekimen erakargarria da. Hondakinak murrizteko jarduerak –adibidez, berriz erabiltzeko edalontziak erabiltzea, hondakinak birziklatzea edo energiari dagokionez eraginkorragoa den argiztapena– enpresa batzuen diru-laguntza jaso dezakete.

Ingurumena babestuta, beherapena lor daiteke enpresak emandako zerbitzuetan, edo baita diru-sarrerara garbi bat ere.

Jaiari eragin zuzena ez duten eragilean artean, erakunde asko daude beren irudia ingurumen-proiektuekin lotu nahian. Aukera zabala dago!



Gizartearen parte-hartzea eta ingurumen-hezkuntza

Jaiak parte hartzeko jarrerako eta jarrera harkorreko eta sentikorreko jende asko biltzen dute. Jarrera horiek aprobe txatu behar dira ingurumen-hezkuntzako jarduerak egiteko.

Jaiaren egunean hasitako ingurumen-ekimen askok arrakasta izan dezaten, parte-hartzaileek modu aktiboan parte hartzea ezinbesteko faktorea da. Era berean, funtsezkoa da jendea ongi informatua egoteko eta ingurumen-jardueretan parte hartzeko behar diren elementuak eta pizgarriak erraztea.

Ingurumenean sentsibilizatzeko eginkizun batzuen ardura hartuko duen *talde berde* bat osatzea oso aukera egokia da.

Talde berdea osatzeko langileak kontratatzen badituzue, kontratazio hori ez hartu itzulera gabeko gastu gisa. Langile horien ekintzak hondakin gutxiago sortzea ekar dezake, baliabideen kudeaketa eraginkorragoa izatea, jarritako ingurumen-zerbitzuak zaintzea, eta jaiaren kalitatea eta erreakzio baikorra hobetzea ere bai.

Jai handienetan, eta jai ertainetan ere bai, oso garrantzitsua da *sustatzaileek* jaietan iraunkortasuna aintzat hartzeko behar diren ekintzak hasi eta koordinatuko dituen *ingurumen-koordinatzaile bat* izatea.

Arduratu auzokoan atsedenez!

Ingurumen-arauei jarraituz antolatutako jaiak ekintza prebentiborik edo zuzentzailek gabeko jaiak baino onespén gehiago izan dezake. Auzokoan trabak murrizteko, bide egokia izan daiteke festak emandako etekin ekonomikoak auzokideentzako ingurumen-ekimen baterako erabiltzea.

Jaiko hiru uneak: jaia hasi aurretik, jaiaren bertan, jaiaren ondoren

1. Jaia hasi aurretik...

Jari egitarauan iraunkortasuna aintzat hartzen duten jarduerak antolatu direla. Parte-hartzaileen mugikortasunarekin eta garraioarekin lotutako alderdietan, azpimarratu garraio publikoa erabiltzea edo automobila partekatzea komeni dela, eta azaldu horrekin eragozten diren ingurumeneko efektu negatiboak zein diren.

Ingurumen-hezkuntzako dokumentu guztiak gai erakargarriekin diseinatu eta editatu. Aprobe txatu komunikabideak Ekojaia, Iraunkortasuna aintzat hartzen duen jaia eta horrelako kontzeptuak sarzteko.

Osatu jaiko ingurumen-ekimenak garatzen lagunduko dizuen *talde berdea*.


2. Jaiaren bertan...

Antolatu parte-hartzaileek ingurumen-jarduera batzuetan parte hartzea sustatzeko jokoak, probak eta bestelako jolas-jarduerak; adibidez, hondakinak edukiontzi desberdinetan bereiztea.

Ikuskizunak kontratatzen badituzue (pailazoak, kaleak animatzeko taldeak, etab.), pentsatu askok, jolas-osagai bat izateaz gain, ingurumenaren sentsibilizazioarekin lotutako beste osagai bat dutela.

3. Jaia amaitutakoan...

Ebaluatu jaia eta zabaldu emaitzak egokiak iruditzen zaizkizuen komunikabideen bitartez (elkarrearen buletinak, TB, irratia, prentsa...).



Jaien ingurumen-inpaktua




Jaietako jarduerak, zuzenean edo zeharka, hainbat inpaktu eragin ditzakete ingurumenean.

Ingurumen-inpaktuak kalkulatzeko atal honetan proposatutako taularen antzekoa erabiltzen baduzue, jarduera bakoitzak ingurumenean izan ditzakeen inpaktuak ikus ditzakezue eta haiek minimizatzen alternatibak bilatu.

Dimentsionatu edarien eta janarien enpresa hornitzaileek hornitzen dituzten produktuak kontsumituta sortzen duzuen hondakin-kantitatea. Aukeratu beti hondakin gutxiengoren sortzen duen aukera.

Jai batean **iraunkortasuna aintzat hartzeko**, ez da nahikoa hondakinak gaika biltzeko edukiontzien aukera osoa jai-barrutian jartzea eta jaiaren amaizurakoan jasotzea; jaiko parte-hartzaileak ondo **plannifikatu** eta **sentsibilizatu** behar dira, eta modu aktiboan lan egin behar da jaiaren **kontrolatzeko** eta haren **jarraipena** eta **ebaluazioa** egiteko.

Konparazio-taula



Hondakinak kudeatzeko gomendio batzuk:

- **Hondakinaren gaikako bilketa antolatu, soilik udalerrian hondakin horientzat bilketa-zirkuitua definitua badago.**
- **Jari birziklatzeko edukiontzia hiri-hondakiñak botatzeko ondoan, inoiz ez bakarka.**
- **Markatu edukiontzia birziklatzeko ikurrak eta piktogramak erabiliz.**

Iraunkortasuna aintzat hartzen duen jaiaren adibidea

Ingurumen Hezkuntzari buruzko 2003ko jardunaldiak (IIHII): Biolur (Ekonekazaritza) arduratu zen catering-az; nekazaritza ekologikoko produktuak banatu zituen eta berriz erabiltzeko baxera erabili zuen.

Iraunkortasuna aintzat hartzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko lehenengo jai: Betizu jai berdeari bai!


Ekainaren 5ean, iraunkortasun-irizpideetan oinarritutako Euskal Autonomi Erkidegoko lehenengo jai ospatu zen Bilboko Erakustazokan. Ekitaldia ETBk antolatu zuen eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez, koordinatu zuen. Nazioarteko ingurumenaren egunean egin zen eta 50.000 haur bildu ziren han.

Iraunkortasuna gogoan duen festa izan zedin, antolatzaileek iraunkortasun-adierazleak erabili zituzten, hauetan oinarritutakoak: festan sortutako hondakin-kopurua murriztea, garraio-plan iraunkorra antolatzea eta ingurumen-hezkuntzako kanpaina bat zabalzea. Bestalde, ingurumenari buruzko argazki-lehiaketa eta tailerra prestatu zituzten, dibulgazio-mezuak jarri zituzten kamisetetan eta liburuxketan eta haur txikienei ingurumenari buruzko galdeketa bidali zizkieten.

Ingurumen-komunikazioko eta -hezkuntzako kanpainari esker, jende gehiena garraio publikoan joan zen jaira. Behar adina edukiontzia jarri zituzten hondakinak behar bezala kudeatzen zirela ziurtatzeko.

Esparruaren zorua moketaz estali zuten, batetik, dekoratzeko eta, bestetik, jendearen zaborrak lurrera botatzea burutik kentzeko. Ekimen horrek emaitza onak izan zituen, lurrera ia zaborrik ez baitzen bota.

Azken buruan, neurri horiei esker, etxeko txikiak sentsibilizatzea eta jaiaren garbiagoa eta iraunkortasuna aintzat hartzen duena izatea lortu zen.



Egiaztapen zerrenda

Jaien antolatzaileei lana errazteko, ingurumen-lehentasun nagusiak ekintzetan aurkezten ditugu labur. Kontuan eduki behar dira jaiak antolatzeko unean. Zerrenda hori egiteko, Ingurumena Babesteko Agentziak (EPA) egindako eredu estatubatuarrari jarraitu zaio.

Jari eguna jaiaren aurretik, jaietan bertan eta jaiaren ondoren egin behar dituzuen jardueretarako, eta esleitu arduradun bat.

Hondakinak murriztea, berriz erabiltzea eta birziklatzea

- ✓ Erabili berriz erabiltzeko ontziteria, edalontziak eta mahai-tresnak.
- ✓ Janaria jan daitekeen oinarrietan zerbitzatu ahal denean (ogi-xerrak, masa hautsia, enpandak, agabe-ogia...).
- ✓ Informatu materialak birziklatzeko zein aukera dauden jaiaren eguingo den udalerrian.
- ✓ Bereizi jaiaren zehar sortuko diren hondakin mota eta kopurua egin beharreko jardueren arabera eta erabiltzeko baliabideen arabera.
- ✓ Alokatu enpresaren bati edo adostu Udalarekin birziklatzeko eta zaborra biltzeko behar dituzuen errefortzuko edukiontzi batzuk lagatzea.
- ✓ Gorde hondakin-mota bakoitzarentzat behar dituzuen edukiontzi espezifikoak kokatzeko lekuak.
- ✓ Kalkulatu jatorrietan izango den jende-kopurua, eta eskatu behar den kantitatea janari asko sobratzea eragozteko.
- ✓ Gorde batera janari-hondakinak eta *konposta egiteko ontziteria* edukiontzi berezietan.
- ✓ Adostu ongintzako elkarteren batekin jaiaren egunean zerbitzatu ez den janaria ematea.

Energia aurrezte

- ✓ Erabili kontsumo txikiko lanparak lekuak argiztatzeko (dekorazioa, kaleak, standen eta postuen argiztapena, zerbitzu sanitarioetako argiztapena...).
- ✓ Bilerak egiteko, aukeratu argi naturala duten lekuak.
- ✓ Jari ur-kontsumoa minimizatzeko mekanismoak bainu eta dutxetan (pultsadoreak, balbulak, emari-erreduktoreak...).
- ✓ Janaria prestatzean, eman lehentasuna ikatz begetala erabiltzeari; energia-baliabide berriztagarria da gasarekin eta sukalde elektrikoekin alderatuta.

Kontratuak produktu-hornitzaileekin: erosketak berdeak

- ✓ Ezarri erosketak baldintzak hornitzaileekin, ingurumen-kalitatea bermatzen duten bereizgarriak dituzten produktuen alde egiteko.



Forest Stewardship Council
Garantía de extracción de maderas ambientalmente correcta



Europako etiketa ekologikoa

- ✓ Jakinarazi hornitzaileei zein ingurumen-jarduera egingo diren jaietan eta hornitzaileek nola parte hartzea espero duzuen.
- ✓ Eman lehentasuna itzultzeko ontzietako edariak erosteari, behin bakarrik erabiltzeko ontzien ondoan.
- ✓ Material birziklatuekin egindako produktuak erosi.
- ✓ Eman lehentasuna Bidezko Merkataritzako produktuak erosteari.

Mugikortasuna: garraioa eta irisgarritasuna

- ✓ Jaia non egin erabakitzean, kontuan eduki garraio publikoko sarearekin ondo konektatuta egon behar duela.
- ✓ Sustatu bizikletak erabiltzea, behar bezala zainduta dauden aparkaleku bereziak prestatuz.
- ✓ Prestatu ondo seinaleztatutako aparkalekuak, eta jarri lekua ondo erabiliko dela ziurtatuko duten arduradunak. Gorde lekua mugikortasun murriztuko pertsonentzat.
- ✓ Ezarri komunikazio-bide eraginkorrak barnean mugikortasun egokia egon dadin aldizka edo salbuespen gisa jai-barrutian sartu behar duten zerbitzuentzat.
- ✓ Kendu arkitektura-oztopoak eta jai-barrutiaren barnean pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa eragotz dezaketen elementuak.



Ingurumen-gaietan sentsibilizatzea eta hezteak

- ✓ Eman jaietan sartutako ingurumen-jardueren eta iraunkortasuna aintzat hartzeko helburua duten ekimenen berri hasieratik.
- ✓ Kontratatu ingurumena errespetatzeko mezuak igortzen dituzten ikuskizunak (pailazoak, animazio-taldeak, antzerkia, etab.).
- ✓ Osatu ingurumen-ekimenei laguntza teknikoaren emango dien eta jaiaren antolatze eta egiteko prozesu osoan parte hartuko duen *talde berdea*. Talde horrek informazioa jaso behar du, ingurumen-ekimenak zabaltzen parte hartu behar du, jaiaren egiteko laguntza eman eta emaitzak ebaluatzen lagundu behar du, besteak beste.



Jaiaren ebaluazioa

- ✓ Ebaluatu parte-hartzaileek ingurumen-ekimenen aurrean izandako erantzuna eta haien gogobetetze-maila eta parte-hartzea.
- ✓ Kontrolatu hondakinak behar bezala bereizi diren eta detektatu hondakin desegokiak egoteko egon daitezkeen arrazoiak.
- ✓ Eskatu hondakin-bilketa kudeatzen duten enpresei mota bakoitzetik jasotako kantitateei buruzko datuak.
- ✓ Eman parte-hartzaileei ingurumen-ekimenekin lortutako arrakasten berri. Horretarako, erabili tokiko komunikabideak (prentsa, irratia, TB, elkartearen buletina, etab.).

Jaien adibideak: kasu praktikoak

Har dezagun iraunkortasuna aintzat jaia antolatzerakoan!!

Zein jai-mota antolatu nahi duzuen baldin badakizue, zuen ospakizunera ondoen egokitzen diren aholkuak kontuan hartu besterik ez duzue.

Planifikatu ingurumen-jarduerak nahikoa denborarekin; hala, jaiaren egunean pentsatutako ingurumen-ekimenak egiteko baliabide guztiak eta nahikoa informazio izango duzue. Kapitulu honetan, jai-mota guztietan iraunkortasuna aintzat hartzeko aholkuak topatuko dituzue. Aukeratu zuen jaira ondoen egokitzen direnak. Ingurumen-alderdiak ahaztu gabe, gogoan izan beti jaiak parte-hartzaileek ondo pasatzeko antolatzen direla.

*Eta gogoan izan...
Ez du axola zein jai-mota antolatzen duzuen, ez zenbat parte-hartzaile dauden; iraunkortasun-irizpide berak aplika daitezke jai-mota guztietan*



Margotu zuen jaia ondoen egokitzen diren aholkuekin!

Erabili **berdea** hondakinak eta energia-kontsumoa murrizteko; **laranja**, garraio eta mugikortasun iraunkorra eta jai-barrutiko segurtasuna sustatzeko; **Lila**, jaiaren ingurumen-hezkuntza sustatzeko. Ospakizun handietan, jai txikiei buruzko ataletan agertzen diren gomendio batzuk aplika ditzakezue. Jai handi bat jai txikien baturatzat ere har daiteke!

Jaiak etxean!

Haurren urtebetetzeak, dantzaldiak, Gabonak...

Nork, noiz eta non egingo dugu jaiak?

Etxe-giroko talde txikien jaiak dira; 10-50 parte-hartzaile izaten dira. Goiz bat, arratsalde bat edo gau bat irauten dute, eta normalean barruko espazioak erabiltzen dira (pisu bat, etxe bat, dantzaleku bat), baina kanpoan ere egin daitezke (lorategi bat, terraza bat, etxeko patioa, landa-etxe bat...). Gizarte-integrazio handia dago, eta horrek ingurumen-jarduerak sartzea errazten du.

Osagaiak: zer dago jaian?

Edaria, janaria, musika, apaingarriak, urtebetetze-opariak, Gabonetako opariak, haurrentzako jolasak...



Murriztea, berriro erabiltzea, birziklatzea!

Saiatu behin bakarrik erabiltzeko ontzien hondakinak ez sortzen; erosi itzultzeko beirazko ontzietako eta/edo ontziratutako gabeko edariak.

- Jarri ontziratutako gabeko edariak ontzi handi batzuetan, jendeak buruntzali batekin berriro erabiltzeko edalontzietara zerbitzatu dezan (kristalezkoak edo plastikozkoak).
- Sustatu txongila, zahatoa eta pegarra erabiltzea.
- Behin bakarrik erabiltzeko ontzietako freskagarriak erosi behar badituzue, saiatu horiek handiak izan daitezen, eta, behin hustutakoan, jaso ontziak gaika edukiontzi horian birziklatzeko.
- Jairako erosketa egiteko, erabili erosketetarako orga, poltsa handi bat edo saskia edo antzeko zerbaitekin. Hala, etxera plastikozko poltsaz kargatuta joatea saihestuko duzue.

Erabili berriro erabiltzeko ontziteria, mahai-tresnak eta edalontziak, eta jarri mahaiari oihalezko mahai-zapiak.

- Jaiaren egunean, erabili eguneroko ontziteria, ontziak eta mahai-tresnak janaria zerbitzatzeko.
- Saiatu janaria erabili eta botatzeko plateretan eta edaria behin bakarrik erabiltzeko edalontzietan ez zerbitzatzeko.
- Jarri oihalezko mahai-zapiak eta aho-zapiak mahaietan. Nahikoa aho-zapi ez baduzue, material birziklatuz egindakoak erosi ditzakezue.

Gorde leku batzuk zabor-ontzientzat, zaborra gaika jasotzeko. Hala, bereizita bota ditzakezue materia organikoen hondakinak, ontziak (plastikoak, latak), papera eta kartoia eta beira.

Erabili irudimena eta etxean dituzuen baliabideak jaia apaintzeko!

- Egin jairako apaingarriak etxean dituzuen materialekin.
- Apaingarriak erosten badituzue, saiatu material birziklatuz eginak izan daitezen eta luze iraun dezaten. Hala, urtero berak aprobeitza ditzakezue eta dirua aurreztuko duzue eta hondakin gutxiago sortuko duzue.

Etxean egindako janaria zerbitzatu, gehiegi bildutako elikagaiak erostea saihesteko edo gutxiago erosteko.

- Etxean egindako janaria zerbitzatu: ogia toma-tearekin eta hestebeteak, krispetak, gazta- eta urdaiazpiko- ogitartekoak, pasta-entsaladak, fruta-mazedoniak, etxean egindako edo gozotegiko pastelak, olibak, fruitu lehorrak, etab.
- Saiatu ez erosten gehiegi bildutako gozogintza industrialeko elikagaiak.

Erabili sormena opariak egiteko!

- Oparitu oroigarri bat edo esperientziaren bat, ikuskizunetara joatea (kontzertu, zinema, antzerkirako sarrerak) adibidez, objektu materialak erregalatu ordez.
- Erregaluak erosten badituzue, saiatu ingurumena eta pertsonak errespetatu ditzaten eta teknologia garbiekin edo elementu birziklatuekin edo birziklagarriekin eginak izan daitezen, eta pentstu bidezko merkataritzako artikuluak erostea ere.



Ingurumen-hezkuntza jaian

Jaia hasi aurretik...

Erabili telefonoa edo posta elektronikoa lagunak gonbidatzeko. Paperezko gonbitak bidaltzen badituzue, saiatu paper edo kartoi birziklatuz eginak izan daitezen edo egin itzazue zeuek etxean dituzuen materialak erabiliz.

Informatu nola hel daitezkeen jaira garraio bide publikoak erabiliz.

(Konsultatu IHOBKO Guía de la Movilidad Sostenible).

Jari harremanetan hurbiletik datozen gonbidatuak, automobila parteka dezaten.

Jaian bertan...

Antolatu haurrentzako jolasak jaia prestatzen sortu diren hondakin batzuk erabiliz. Baliabideen atalean, material horiekin egin ditzakezuen jolasak azaltzen dituzten liburuak aipatzen ditugu. Egin ezazue proba!

Jostailuak ere egin ditzakezue material horiekin. Badaude profesionalak tailerrak diseinatu dituztenak metalezko ontziekin, latekin, tetrabrikuekin eta abarrekin jostailuak egiteko.

Jaiaren ondoren...

Animatu parte-hartzaileak jaia egin den lekua garbi uztera. Informatu non utzi behar dituzten sortutako hondakinak, eta ziurtatu behar bezala hautatzen direla. Aprobeitxatu jarduera hori haurrak eta helduak birziklatzeak duen garrantziaz sentsibilizatzeko.

Jaiak eskolan, jolas-zentroan, elkarteetan...

Nork, noiz eta non egingo dugu jai?

Jaiak 50-500 lagunek hartzen dute parte (eskolak, elkarteak, jolas-zentroak, kirol-elkarteak). *Sustatzaileek* kontuan eduki behar dituzte egin nahi dituzten jarduerak guztiak, haiek behar bezala funtziona dezaten eta jaiaren iraunkortasuna aintzat har dadin ziurtatzeko. Jaiko antolaketa-batzordeko kideen artean koordinazio ona egotea ere oso garrantzitsua da.

Jaiak, normalean, egun bat, goiz bat edo arratsalde bat irauten dute, baina, noizean behin, asteburu osoak izan daitezke. Topaketa horiek barneko espazioetan (kiroldegiko aretoa, elkartearen egoitza, azalera handiko beste barneko lekuak) eta/edo kanpoan egiten dira (plaza, kalea, ikastetxeako patioa, etxeako patio bat, lorategia, landa-etxea...).

Osagaiak: zer dago jaietan?

Edaria, janaria, musika, apaingarriak, txikientzako jokoak, animazio-taldeak ikuskizunak (musikariak, pailazoak, aktoreak).

Jaiak etxean! atalean emandako gomendio asko jai-mota hauetan ere aplikatu daitezke. Kontsulta.

Murriztea, berriro erabiltzea, birziklatzea!

Murriztu behin bakarrik erabiltzeko ontzien hondakinen sorrera; erosi itzultzeko beirako ontzietako eta/edo ontziratu gabeko edariak.

Erabili presiopeko zorrotadak edariak zerbitzatzeko.

Erabili berriz erabiltzeko ontziteria eta oihalezko mahai- eta ezpain-zapiak.

Materia organikoarekin batera birziklatzen den konposta egiteko ontziteria erabiltzea ere aukera ona da.

- Janaria jende askori zerbitzatzeko pentsatzen baduzue, erabili konposta egiteko materialak egindako ontziteria; izan ere, behin erabilitakoan, materia organikoaren hondakinekin birzikla daiteke.

Berriro erabili edalontziak; "bakoitza bere edalontziarekin"

- Erabili kristalezko edalontziak edo plastiko gogorreko edalontziak; izan ere garbitu eta gero berriro erabili daitezke. Plastikozko edalontziak baliabideen eta helbideen kapi-tuluan aipatzen diren enpresa batzuetan erosi ditzakezue. Edalontzi horiek laguntzaileei aloka diezazkiekezue (edalontziak alokatzeko sistema **Jai jendetsua** atalean azaltzen da).



Berriz erabiltzeko nahikoa edalontzi erosi zuen elkarte antolatutako ekitaldi guztietan erabiltzeko.

- Nahikoa ontzi ez baduzue, enpresa espezializatuari aloka diezazkiezue edo jaiko laguntzaileei etxetik ekartzeko esan diezaiezue.
- Animatu parte-hartzaileak etxetik edalontzia edo kava-kopa ekartzera, eta sustatu ekimen hau edalontzi hori erabiliz hartzen dituzten edarien prezioak murriztuz.

Janariak prestatzeko osagaiak azokan erosi, eta saiatu gehiegi bildutako ontziak ez erosten.

- Azukrea, gatza, espezieak, saltsak... zerbitzatu kristalezko, egurrezko edo zeramikazko ontzietan bananako poltsatxoak erabili ordez.

Bereizi hondakinak gaikako bilketako zirkuituak daudenean.

- Jaia elkarte edo kolektibo antolatzailearen kideen kanpoko espazio batean egin baduzue (lorategia, landa, etab.) sortutako janari-hondakinekin konposta egiteko aukera azter dezakezue. Hala, hondakinak birziklatuko dituzue, eta, aldi berean, parte-hartzaileak hezi eta sentsibilizatuko dituzue.
- Aztertzeke beste aukera bat jaien zerbitzatu ez den janaria gizarte-zerbitzuetako erakunderen bati ematea da.

- Ziurtatu udalerrian badaudela gaikako bilketako zirkuituak birziklatzea pentsatzen duzuen materialentzat. Zirkuitu horiek ez badaude, enpresaren bat kontrata dezakezue biltzeko. Aprobetxatu herriko administrazioari unean egiten ez den hondakin-mota baten gaikako bilketa ezartzea eskatzeko (materia organikoa).
- Sustatu hondakinak bereiztea, mota bakoitzerako edukiontzi espezifikoak jarritz eta bereiziz.

Argi identifikatu edukiontzi bakoitzean utz daitekeen hondakin-mota, plafoi, marrazki eta/edo piktograma egokiak erabiliz.



Ingurumen-hezkuntza jaian

Jaia hasi aurretik...

Jakinarazi gonbidatuei parte hartuko duten jaiak iraunkortasuna aintzat hartzen duela.

Jaia iragartzen duzuen karteletan argi jarri Ekojaia dela, iraunkortasuna aintzat hartzen duen jaia dela, hondakinik gabeko jaia dela eta abar.

Saiatu gonbitak mezu elektronikoz bidaltzen posta duten gonbidatuei.

Material birziklatua erabili kartelak, triptikoak, liburuxkak eta abar editatzeko.

Aprobetxatu barneko eta herriko komunikabideak (Internet, elkartearen buletinak, TB, irratia, egunkariak) iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiaren publizitatea egiteko.

Jaiari bertan...

Eskoletan eta jolas-zentroetan jarduera asko egin ditzakezue txikienek, ondo pasatzeaz gain, ingurumena errespetatzeko mezuak jaso ditzaten:

- Ingurumeneko gairen bati buruzko bideo bat ematea, marrazki bizidunak edo dokumentala jendearen adinaren arabera.
- Hondakinekin lan-tailerrak egitea, hondakintzat hartutako materialekin haurrek jostailuak egin ditzaten eta horiei beste erabilera bat eman.

- Hondakinak murrizteko, berriro erabiltzeko eta birziklatzeko mezuak dituzten ikuskizun dibertigarriak egiten dituzten pailazoak kontratatzea.
- Ingurumen-gaiei buruzko ipuin-kontaketa programatzea, eta ingurune naturalari, poluzioari eta hondakinak murrizteari buruzko istorioak kontatzea.

Jaiaren ondoren...

Aprobetxatu hondakinak tratatzeko instalazio batera edo *garbigune* batera bisita bat egiteko. Hara eraman ditzakezu jaiari edo jaia prestatzen sortutako hondakin batzuk.



Herriko, auzoko, kaleko... jai nagusia

Nork, noiz eta non egingo dugu jaia?

Jai nagusiaren zain irrikan egoten dira auzokoak. Jai-mota hauek 1 edo 2 egun iraun dezakete edo baita astebete baino gehiago ere. Jarduerak, normalean, leku batean baino gehiagotan egiten dira, aire zabalean. Antolaketan hainbat eragilek parte hartzen dute (auzokoen elkarteak, erakundeak, herriko administrazioa...). Gizartean ez daude guztiz integratuta, eta hainbat motatako interes ludikoak nahasten dira. Faktore horiek guztiek zaildu egiten dute ingurumen-jarduerak sartzea.


Zailtasun horiez gain, iraunkortasuna aintzat hartzen duen jai handi bat antolatzeko erronka izateak onura asko ekar ditzake, bai sozialak bai ingurumenekoak!

Udaleko kultura- eta ingurumen-sailek eta jaia antolatzen duten erakundeek jolas- eta ingurumen-jarduera guztiak planifikatu behar dituzte bien arrakasta ziurtatzeko.

Osagaiak: zer dago jaian?

Edaria, janaria, esku-lanak saltzen dituzten *postuak*, jaiari parte hartzen duten herriko edo auzoko tabernak, musika-ikuskizunak, orkestrak, disko mugikorra, zerbitzu sanitarioak, atrakzioen feria, haurrentzako jokoak, apaingarriak, herri-bazkariak....

Ez ahaztu aurreko ataletako jai-motetan eman dizkizuegun gomendioak, asko jai-mota hauetan ere aplikatu baitaitezke. Gogoan hartzea gomendatzen dizuegu.



Eduki iraunkortasuna aintzat
hartzen duen jaia egiteko erronka!
Denok irabaziko dugu!

Murriztea, berriro erabiltzea, birziklatzea!

Edariak berriro erabiltzeko edalontzietan zerbitzatu!

Berriro erabiltzeko edalontziekin behin bakarrik erabiltzeko edalontziak erabiltzean baino hondakin gutxiago sortzen da. Edalontzien alokairuaren kudeaketa Jai jendetsuaren atalean azaltzen da. Pentsatu edalontzien alokairu-zerbitzua zabaltzea taberna batzuetan.

Antolatu jende askorentzako jatorduak hondakin gutxiagorekin. Paellak, barbakoak, marmitakoa... egin iraunkortasuna gogoan izanik!

Kontuan eduki murrizteko, berriz erabiltzeko eta birziklatzeko arauak jatorduetan:

1. Murriztu janari-hondakinak: Planifikatu ondo menua eta erosi behar den janari-kantitatea soilik, eta, ahal den guztietan, zerbitzatu janaria jan daitezkeen oinarrietan (adibidez, ogi-xerrak, agabe-ogia, taloak, pizzak eta enpanadak).

2. Berriro erabili beirazko edo zeramikazko ontziteria. Alokatu egin dezakezue, eta ontzi-garbigailu eramangarri baten zerbitzua ere bai, platerak jaien berriro erabiltzen direla ziurtatzeko. Beste aukera bat da ontziteria garbitzeko zerbitzua jatetxeren batekin kudeatzea.

3. Birziklatzea: Erabili *konposta egiteko ontziteria*; materia organikoaren hondakinekin batera birzikla daiteke. Kasu honetan ontziteria eta materia organikoa edukiontzi berean jasotzen dira, eta, konposta lortzeko, berdin tratatzen dira.

Antolatu bigarren eskuko materialen azoka

Azoka horiek erabilgarriak ez diren produktuak edo materialak eskaintzen dituztenen eta material horiei balioen bat ikusten dietenen topagunea sortzen dute. Erosketa-baldintzak bi alde interesatuen artean ezartzen dira (saltzailea eta eroslea), eta batzuetan produktu-trukea besterik ez da izaten.


Indartu edukiontziak jasotzeko eta bideak garbitzeko zerbitzuak

Jaiaren egunetan indartu edukiontzien zerbitzua, gaikako bilketak eta botatzekoen bilketak ugarituz. Adostu bilketa-ordutegiak eta kaleak eta plazak garbitzeko ordutegiak. Aurreikusitako eta erraztu bilketa- eta garbiketa-zerbitzuz kale guztietan sartzea, bidea eragotziko duen oztoporik, ikuskitunik, apaingarririk egon ez dadin.

Apaindu kaleak material birziklatuaz

Apaingarriek ematen diete jai-itxura herriko edo auzoko kaleei jaiak ospatzen direnean. Iraunkortasuna gogoan hartuta apaintzeko ekimenek apaingarriak egiteko hondakinak erabiltzea sustatzen dute (tetrabrikak, latak, ontziak, etab.).

Horretarako, jai-batzordeak, aurrez, apainketa horiek egiteko lehengai gisa erabiliko dituzten hondakinen gaikako bilketa antolatu behar du.



Zaindu parte-hartzaileen eta auzokoen ongizatea eta segurtasuna

Erraztu mugikortasuna parte-hartzaileei eta auzokoei

Ziurrenik jaiaren egunetan ibilgailuen joan-etorria mugatuta egongo da kale batzuetan. Eskatu udalari kaleetako zirkulazioa eteteko behar den baimena, eta auzokoei oharrarazi kale batzuetan zirkulazioa eten egingo dela eta eman bide alternatiboei buruzko informazioa.

Mugatu musikaren bolumena

Ezarri onartzen den bolumen maximoa eta adostu musika-taldeekin baimendutako soinu-potentzia maximoa. Ekitaldirako. Planifikatu agertokiaren egoera eta bozgorailuen orientazioa, kaleko edo plazako auzokideei ahalik eta kalterik gutxien eragiteko.

Ingurumen-hezkuntza jaiari

Jaia hasi aurretik...

Diseinatu jaiaren ekimen ekologikoaren berri emateko materiala. Kontzeptu hauek grafikoki erraz irudikatzen dira eta iraunkortasunaren kontzeptua transmititzen dute: oreka, armoniak, zikloa, etab.

Osatu jaiko ingurumen-ekimenetan lagunduko dizuen *talde berdea*. Talde horrek esku-hartzeetan eta jaiaren planifikatze-, hedatze-, ospatze- eta ebaluatze-lanetan parte hartuko du.

Jaiari bertan...

Kontratatu animazio-taldeak, ingurumena errespetatzera eta hondakinak murriztera, berriz erabiltzera eta birziklatzera zuzendutako mezuak igorriko dituzten ikuskizunak antolatzen dituztenak. (ikus baliabideen eta helbideen atala gidaren amaieran).



Hona hemen proposamen batzuk:

- Ingurumen, natura eta antzeko gaiei buruzko antzezlanak.
- Hondakinen kalejira: musika, material birziklatuekin egindako pertsonaiak, ingurumenari buruz sentsibilizatzeko mezuak.
- Txikienezako jolas dibertigarriak hondakinak erabiliz.
- Pailazoen ikuskizunak, ondo pasarazten dutenak eta ingurumena errespetatzeko mezuak igortzen dituztenak.
- Ingurumeneko kontzeptuei buruzko tailer zientifikoak (energia berriztagarriak erabiltzea, baliabide naturalak aurrezte...).

Jaiaren ondoren

Eskatu hondakinak biltzeaz arduratu den enpresari bildutako kantitateei buruzko datuak.

Ingurumen-jardueren ebaluazio-txostena idatzi, eta emaitzak herriko biztanleei jakinarazi, murriztutako eta birziklatutako hondakin-kantitateak nabarmenduz. Erabili herriko komunikabideak emaitza horiek zabaltzeko eta, modu batera ala bestera, ingurumen-ekimenetan parte hartu duten enprekin partekatzeko.

Iraunkortasun-irizpideak postuak diseinatzean

Erabili **iraungo** duten eta hurrengo edizioetan postuak muntatzeko aukera emango duten **materialak**.

Bertakoko produktuak zerbitzatu eta **modu ekologikoan** hezitakoen alde egin.

Ontziratu gabeko edariak zerbitzatu, berriz erabiltzeko edalontzietan.

Janaria **berriz erabiltzeko edo konposta egiteko ontzietan** zerbitzatu.

Birziklatu beirazko, plastikozko eta metalezko ontziak eta materia organikoko hondakinak.

Edukiontzi-sorta bat eduki sortutako hondakin-mota desberdinak bereiztea errazteko.

Postuak **kontsumo txikiko lanparekin** argiztatu.

Ikatz begetala erabili janaria prestatzeko.



Jaialdia, kontzertu jendetsua, ikuskizun-feriak...

Nork, noiz eta non egingo dugu jai?

Son encuentros que reúnen a decenas de miles de personas y se caracterizan por la poca integración social de los participantes. El espacio de celebración puede ser:

- **kanpoko leku mugatua:** hainbat girotarako prestatutako esparrua (kanpatzeko eremuak, taberna-eremuak, kontzertu-eremuak...).
- **kanpoalde anitza:** jai handietakoen antzekoa.

Ingurumen-inpaktu nabarmena dute jai trinko hauek. Iraupena desberdina izan daiteke: egun batekoa edo gehienez lau egunekoak, gutxi gora-behera.

Faktore horiek guztiak ingurumen-alderdiak sartzea zailtzen dute. Leku horretakoa izatearen sentimendu faltak are eta gehiago zailtzen du jaiaren iraunkortasuna aintzat hartzen duten jarduerak sartzea.

Osagaiak: zer dago jai?

Agertokiak musika-taldeekin, hainbat zerbitzu ematen dituzten *postuak* (edariak, janaria, salgaiak... kanpatzeko remuak, janaria prestatzeko eta jateko eremuak, supermerkatuak, zerbitzu sanitarioak (komun kimikoak), dutexak, larrialdi-rako zerbitzuak (medikuak, segurtasuna).

Hau da jai-mota konplexuena. Orain harte emandako aholku guztiak jendetsuak diren jai-mota honetarako baliagarriak dira.



Iraunkortasuna aintzat hartzen duen jaialdi bat antolatzeko erronkak onura batzuk ziurtatuta ditu:

- . Ingurumen-inpaktu gutxiago sortzen da.
- . Parte-hartzaileak gehiago sozializatzen dira.
- . Onura ekonomikoa lortzen da.

Murriztea, berriro erabiltzea, birziklatzea

Behin bakarrik erabiltzeko ontzien kontsumoa murriztu

Adostu edariak zerbitzatzen dituzten *postuekin* garagardoa eta freskagarriak zerbitzatzeko presiopeko zorrotadak erabiltzea. Neurri hori arau gisa eska daiteke, eta, kasu horretan, edari-hornitzaileekin kontratuaren baldintzak negoziatu beharko dira.

Hondakinak murrizteko ingurumen-irizpideak dituzten salmenta automatikoko eremuak instalatu

- Edariak itzultzeko beirazko ontzietan saltzen dituzten makina automatikoak instalatu. Horiekin batera, onzi horiek berreskuratzeko beste makina batzuk jarri.
- Edalontzirik gabe zerbitzatzeko aukera duten kafe-makinak instalatu; eta hori merkeago jarri eta erabiltzaileak berriz erabiltzeko edalontzi bat edo kikara bat erabiltzera bultzatu. Makina kudeatzen duen enpresarekin adostu makinak bidezko merkataritzako kafea zerbitzu dezan

Aurreztu ura eta elektrizitatea

- Minimizatu ur-kontsumoa bainuetan, dutxetan eta komunetan, besteak beste tangetan bolumen-murriztaileak ezarriz, emari-mugatzaileak eta tenporizadoreak instalatuz eta dutxetan eta konketetan pultsadoreak jarritz.
- Alokatu behar adina komun kimiko eta instalatu behar bezala seinaleztatutako lekuetan hodi osasungaitzak saihesteko.




- Kontsumo txikiko lanparak erabili konketetan, kanpoko argiztapenean eta *postuetan*.

Bildu hondakinak gaika

- Ezarri biltzeko baldintzak (ordutegia, kamioietara sartzeko bideak, etab.) kudeatuko duen enpresarekin edo herriko administrazioarekin.
- Gaikako bilketarako eta botatzeko zaborretarako edukiontzia ondo ikusteko lekuan jarri, jaiko parte-hartzaileen eta zerbitzuen zirkulazio librea eragotzi gabe.
- Jarri birziklatzeko eta botatzeko gaien edukiontzi guztiak elkarren ondoan; ez da komeni edukiontzia bakarka jartzea.
- Banatu, *postuko* jabeen artean, sortzen dituzten hondakinak gaika jasotzeko behar adina edukiontzi eta zabor-poltsa. Jaien hondakinak gaika bilduko badira, eman *postutik* gertuen dituzten edukiontzien eta birziklatzeko araudiaren berri.

Sustatu



Saihestu



Berriz erabiltzeko edalontzia kudeatzea

- Kalkulatu jaien izango diren parte-hartzaileen kopurua eta erosi behar adina plastiko gogorreko edalontzi (gutxienez 1 pertsonako).
- Muntatu edalontziak alokatzeko eta itzultzeko behar adina postu; eta ikusteko errazak izan daitezela eta gaiak berriz erabiltzearen, hondakinak minimizatzearen eta abarren aldeko lemak izan ditzatela.
- Alokatu ontzi-garbigailu bat itzultzen diren edalontzientzat, edo adostu ontzi-garbigailu bat erabiltzea jaia ospatzen den lekutik gertu dagoen jatetxe batekin.
- Ziurtatu berriz erabiltzeko edalontziaren ekimenak ondo funtzionatuko duela, datu hauek zehaztuko dituen informazio-kanpaina on bat eginez:
 - Edalontziak alokatzeko eta itzultzeko postuen orduategia.
 - Edalontzia alokatzeko prezioa.

Berriz erabiltzeko edalontzia hondakinak minimizatzeke tresna da. Aparteko irabaziak lortzeko bakarrik erabiltzeak eragin dezake jaiko parte-hartzaileek ekimena baztertzea. Edalontzia alokatzeko prezio on bat 0,50 € dira.

Edalontzia erabiltzea beharrezko betebeharrak modura ezarri, eta ez onartu edariak erabili eta botatzeko edalontzietan saltzea.

Serigrafian egindako berriz erabiltzeko lema batzuk:
El vaso más de una vez - (Molins de Rei)

EDALONTZIAREN EZAUGARRIAK

Materiala:

Plastiko gogorra lurrera erortzerakoan apurru ez dadin.

Edukiera:

300 ml. baino gehiago.
Imprimatzeko gai.
Tenperatura altuak jasateko gai.
Diseinu erakargarria.
Erabiltzeko gai.

Goierriko Udaltalde 21: berriz erabiltzeko edalontziak banatuko dituzte eskualdeko festetan

Joan den urriaren 22an eta 23an jarri zen abian Goierriko Udaltalde 21ek bultzatutako kanpaina, Zaldibian, "Sustraietz Blai" jaialdian. Eskualdean egingo diren beste festa eta ekitaldi batzuetara zabaldu nahi dute ekimena, eta, hala, Legorretan ospatuko den Gazte Festan ere berriz erabiltzeko edalontziak banatuko dituzte euro bategatik. Festetan eta bestelako ekitaldietan erabili ohi ditugun edalontziek sortzen dituzten hondakinak % 90 inguru murrizten dira horrelako edalontziak erabilita. Horretaz gain, birziklatzeko eta produktuak berrereabiltzeko kultura bultzatu nahi dute, oso zabaldua baitago 'erabili eta bota' kultura.

Edalontzi urdinak, berdeak, laranja, horiak eta gardenak banatuko dira, Goierriko Udaltalde 21en logotipoarekin, argazkian ikus daitekeen moduan.



Edalontzia Kataluniako jai handietan

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko jaien, 1998an, baliatu ziren lehen aldiz berriz erabiltzeko edalontziak. Orduz geroztik, urtero hogeita hamar bat mila lagunek erabiltzen dute edalontzi-mota hori! Egun, Kataluniako herri askok –besteak beste, Figueres, Cardedeu, Salt, Sant Cugat del Vallès– erabiltzen dituzte horrelako edalontziak jai handietan. Erabil itzazue zuek ere! Bilbon ere!



Zaindu parte-hartzaileen eta auzokoen ongizatea eta segurtasuna

Ziurtatu jaira garraio publikoan joan daitekeela eta koordinatu jaiaren ordutegiak garraio publikoaren zerbitzuarekin eta, behar izanez gero, indartu edo gehitu.

Prestatu ondo seinaleztatutako eta egokitutako aparkalekuak eta gorde lekua mugikortasun murriztuko pertsonentzat. Saiatu bizikletentzako aparkalekuak jartzen eta behar bezala zaintzen.

Barne-komunikazio eta –mugikortasun egokia eta segurua bermatu, bai antolatzaileentzat, bai zerbitzu-hornitzaileentzat, bai parte-hartzaileentzat

Ezari antolakuntzako zerbitzu guztien komunikazio eta mugikortasun-kanalak. Jaietan, larrialdi-egoeretan batez ere, ezinbestekoa da segurtasun-taldeekin komunikazioa bermatuta edukitzea.

Antolakuntzako langileek bereizgarriren bat eraman behar lukete (koloretako txalekoak, besokoa, etab.) erraz eta azkar identifikatu ahal izateko.

Jarri agertokiak kontzertuetako musikak gainerako parte-hartzaileei ez molestatzeko moduan


Agertokiak instalatzerakoan inpaktu akustikoa kontuan izan behar da. Planifikazio on bat egin behar duzue; agertokiaren kokalekua, bozgorailuen orientazioa, soinuaren potentzia eta eragin gehien izaten duten auzokoak kontuan eduki behar dira. Auzokoei aurrez eman sortuko zaizkien eragozpenen berri. Instalatu, ahal bada, zarata indargabetzen duten pantaila akustikoak.

Murriztu jaiaren ondorengo inpaktuak

Jaiaren amaitutakoan, lekuak jaiaren ondorengo aurretik bezala geratu behar du. Finkatu garbiketa-zerbitzuekin azkar eta modu eraginkorrean aritzeko era. Enpresa horiekin kontratuak sinatzerakoan, negoziatu ingurumeneko kaltegarriak ez diren produktuak erabiltzea.



ARRISKUTSUA
INGURUMENERAKO



Ingurumen-hezkuntza jaiari

Jaia hasi aurretik...

Erabili komunikabideak (herriko prentsa, irratia, telebista) jaialdiaren ingurumen-ezaugarrien berri emateko.

Jaialdiaren sarrera-txartelean adierazi jaiko ingurumen-alderdiak, eta azaldu sarrera-prezioaren zati bat ingurumen-zerbitzuak kudeatzeko izango dela.

Eman jaiaren ingurumen-araudiari buruzko informazioa *postu* guztiei.

Osatu jaia hasi aurretik, jaiari eta jaia amaitutakoan ingurumen-ekimenetan lagunduko duen *talde berdea*.

Prestatu *puntu berde* bat jaiko musika- eta ingurumen-jarduerei buruzko informazioa emateko.

Jaiari bertan

Animatu musika-taldeak beren ekitaldian jaiko ingurumen-ekimenekiko babesa adieraztera.

Gogorarazi jaiko ingurumen-araudia zein den betetzen ari ez direla antzemandako *postuei*.

Postuetan dagoen ingurumenari buruzko informazioa agortu bada, jarri berriro.

Berriz erabiltzeko edalontziaren ekimenarekin, zeharka, ingurumenari buruz sentsibilizatzeko lana egiten da, eta jaiko parte-hartzaileen portaeran eragiten du.

Jarri informazio-plafoiak birziklatzeko edukiontzien eremuetan, edukiontzi bakoitzean utzi behar diren hondakin-motak argi adieraziz.

Jaiaren ondoren...

Idatzi ingurumen-ekimenetan lortutako emaitzen ebaluazio-txostena, eta zabaldu komunikabideen bitartez eta zuzenean edo zeharka jaiari parte hartu duten eragileen artean (jendea oro har, enpresak, administrazioak).



Puntu berdearen funtzioak

Informazioa ematea

- Jarduerei buruzko informazioa: emanaldiak, ordutegiak, agertokiak...
- Ingurumen-ekimenei buruzko informazioa: berriz erabiltzeko edalontzia, hondakinaren gaikako bilketa, konposta egiteko ontziteria...

Laguntza logistikoa

- Gune hau edukiontzien eta jaiko ingurumen-ekimenak garatzeko behar diren beste materialen biltegi gisa erabiltzen da.

Topalekua

- *Talde berdearen* jarduerak kanalizatzen dira eta parte-hartzaileen iradokizunak jasotzen dira.

Glosario

Ingurumen-koordinatzailea: jaiak egiten diren ingurumen-jarduerak kudeatzeko ardura duen talde sustatzaileko kidea. Talde berdea koordinatzen du eta *puntu berdea* antolatzen du.

Talde berdea: gaingurumen-jardueretan laguntzeko ardura duten eta horretarako prestatuta dauden pertsonen taldea.

Postua: edariak, janaria, esku-lanak eta bestelako produktuak saltzen diren kanpoko instalazioa.

Ingurumen-babeslea: ingurumen-ekimenetan, baliabide ekonomikoak edo materialak emanez, beren irudi berdea indartzearen truk parte hartzen duten enpresak, erakunde publikoak edo bestelako entitateak.

Puntu Berdea: parte-hartzaileek ingurumen-jarduerak gauzatzeko ziurtatzeko behar den informazio osoa, giza baliabideak eta baliabide materialak topa ditzaketen lekua.

Sustatzaileak: jaiak antolatzen duten pertsonak, pertsona-taldeak, erakundeak, instituzioak, etab.

Garbigunea: herritarrek etxeko hondakin-mota guztiak sailkatzeko eta gero berreskuratzeko edo tratatzeko eramaten dituzten udal-instalazioa.

Konposta egiteko ontziteria: batez ere artotz-almidoiz egindako platerak, mahai-tresnak eta edalontziak, gero konposta egiteko erabiltzen direnak.

Zonning-a: jai-barrutiaren barnean zerbitzuak non kokatuko diren zehaztea (tabernako barrak, postuak, zerbitzu sanitarioak, ikuskizunen eremua) eta parte-hartzaileak, antolatzaileak eta haiekin lotutako zerbitzuak mugitzeko bideak definitzea.

Helbide eta kontaktu interesgarriak

Ekitaldiak antolatzen esperientzia duten enpresa edo zerbitzu batzuen baliabideak. Zerrenda askoz handiagoa da. Zerrenda honetan egon nahi baduzue edo baliabide hauetako bati buruzko informazioa jaso nahi baduzue, jarri harremanetan IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin.

Berriz erabiltzeko plastikozko edalontziak

Rezikleta, S. Coop.

Erltxeko industrialdea
D plataforma, 5 nabea
48960 - GALDAKAO
tel.: 944571447
faxes: 944571671
h.el.: rezikleta@rezikleta.com
<http://www.rezikleta.com>

Konposta egiteko ontziteria eta poltsak

Ekonekazaritza

Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Federazioa.
Urteaga kalea, 23. 20570 Bergara.
tel.: 943 76 18 00
faxes: 943 76 02 94
h.el.: ekonekazaritza@euskalnet.net

Vending (edariak itzultzeko ontzietan saltzen dituzten makinak eta ontziak berreskuratzeko makinak)

ADELVA

Tel.: 93 710 08 15

AUTOMATIC SA

Tel.: 93 223 86 70

DABA S.A.

Tel.: 93 721 79 00

IBERVENDING

Tel.: 93 721 79 70

Bidezko Merkataritzako produktuak

Bidezko Merkatarizaren Estatuko Koordinakundea

Ehunurteurrenaren plaza 3, etxabea. 20006 DONOSTIA.
tel. eta faxes: 943 461578
h.el.: coordinadora@comerciojusto.org
<http://www.e-comerciojusto.org>

Mercadeco

San Felicísimo plaza, 14. 48.014 BILBO
tel.: 944 76 30 55
faxes: 944 76 09 96
h.el.: mercadeco@arrakis.es

Medicus Mundi

Puestomundi Abastos plaza, Santa Barbara plaza z/g, 37. postua
Gasteiz 01004

Setem Euskadi

tel.: 902 012 838
h.el.: euskadi@setem.org
<http://www.pangea.org/euskadiv>

Intermon-Oxfam

Bidezko Merkataritza Saila
tel.: 902 330 331
<http://www.intermon.org/page.asp?id=277&idioma=1>

Tienda Bilbao

Urkixo zumarkalea, 11. 48008 Bilbo
tel.: 944 160 072

Emaús-Erein Getxo

Basagoiti etorbidea, 56
48990 ALGORTA-GETXO (Bizkaia)
tel.: 94 491 33 07
h.el.: erein@euskalnet.net
<http://www.euskalnet.net/erein>

Birziklatzeko eta ingurumeneko gaien buruzko tailerra

HABEA – Euskal Herriko Ingurumen Hezkuntzarako Ekipamenduen Elkarte

Javier Sánchez
Brinkola Auzoa
20220 Legazpi
tel.: 943 652544 - Fax: 943 360504
h.el.: haizelan@netaldea.es

Rezikleta, S. Coop.

Erltxeko industrialdea
D plataforma, 5 nabea
48960 - GALDAKAO
tel.: 944571447
faxes: 944571671
h.el.: rezikleta@rezikleta.com
<http://www.rezikleta.com>

Keima

Pobeñako eskoletarako bidea z/g 48550 MUSKIZ
Harremanetarako: Imanol Paredes
tel.: 94 4249955/946 708107
h.el.: keima@sartu.org
<http://www.keima.net>

Iniciativas Ambientales

Juan Urbieto 6, 13 D-I
48015 Bilbo
tel.: 94 4479206
faxes: 94 4478841

Ortzadar

Landabaso plaza 12, 3. B
48015 Bilbo
tel.: 94 4745775
faxes: 94 4745875

Hayzelan

Pablo Sorozabal 3
48910 Sestao Bizkaia
tel.: 94 4967717
faxes: 94 4966789

Hazia

Simon Bolibar plaza 14, 6. D
01003 Gasteiz
tel.: 630 347006

Galemys

Rafael Alberti 4, etxabea
01010 Gasteiz
tel.: 945 176276
faxes: 945 171500

Acción-Zero

Tornu 2 A, 1. C 01001 Gasteiz
tel.: 945 277503
faxes: 945 267793

Artelatz – Ingurugiro Zerbitzuak

Igarondo 4, 1. C 20400 Tolosa Gipuzkoa
tel.: 943 670637 670249
faxes: 943670906

Pagoa – Consultores Ambientales

Serafin Ajuria 2, etxabea
01008 Gasteiz
tel.: 945 219864 mugikorra: 630 271545
faxes: 945 244724

T.A.E.R.

Gorbeia 11, 5. ezk. 01008
Gasteiz
tel.: 945 226447 mugikorra: 651 704 968

Ingurumenari buruzko mezuzak dituzten ikus-kizunak, jokoak, antzerkia, musika:**Ama-Lur (Kultur Koordinatzailea)**

48 P.K. - 48920 Portugalete
tel.: 944 862 444
1166 P.K. - 20080 Donostia
tel.: 943 475 090
2249 P.K. - 01080 Gasteiz
tel.: 945 145 599
www.ama-lur.com

Maskarada Antzerki Konpainia

Kontenedore baten istorioak
10.158 posta-kutxa - 48080 Bilbo (Bizkaia)
tel./faxes: 944 46 77 81
Mugikorra: 659 13 12 91
www.maskarada.net

Enkarni Genua

"Txotxongiloak": Erreka Mari, Itsas-mina
Harremanetarako:
Euskal Idazleen Elkarte
tel.: 943 276999
faxes: 943 277288
h. el.: eie@eie.euskalnet.net

Joseba Ramírez

Zaborrei buruzko "txotxongiloa"
Harremanetarako:
Euskal Idazleen Elkarte
tel.: 943 276999
faxes: 943 277288
h. el.: eie@eie.euskalnet.net

Jolasak hondakinekin**HABEA – Euskal Herriko Ingurumen Hezkuntzarako Ekipamenduen Elkarte**

Javier Sánchez
Brinkola Auzoa
20220 Legazpi
tel.: 943 652544 - faxes: 943 360504
h. el.: haizelan@netaldea.es

Jokulandia

(Iñaki Vélez Zufiaurre)
Etxarri-Aranatz (Nafarroa)
tel.: 656875699

WEB interesgarriak

Euskadiko informazioa**EUSKO JAURLARITZA**

www.ingurumena.net
Eusko Jaurlaritzaren garapen iraunkorrari buruzko informazioa biltzen duen web-a.

Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa-IHOBE

http://www.ihobe.net

CEIDA

http://www.euskadi.net/vima_educacion/ceida_c.htm

CEA

http://www.vitoria-gasteiz.org/ceac/index.html

TERRA.ORG

http://www.terra.org
Ekoproduktuak on-line saltzeko atal bat du; adibidez, konpostagailuak, eguzki-sukaldeak, pedal bidezko eguzki-kargagailuak (baita lankidetzarako jolasak ere).

Australia

http://www.ecorecycle.vic.gov.au/litter/waste-wise-events.asp

http://www.caa.org.au/taste/lowwaste/index.html
Hondakinak minimizatzeko irizpideak sartuz jaialdiak nola antolatatu azaltzen duten gidak. Oso baliagarriak. Egiaztatze-taulekin eta zerreendekin. Jarraibideen gida.

AEB

http://www.uwm.edu/Dept/besmart/festival/festival_frame.html
Hondakinak murrizteko unibertsitateko gida ekitaldi-kudeatzaileentzat.

http://www.epa.gov/epaoswer/non-hw/reduce/grn-mtgs/mtg.htm
"It's easy being Green! A Guide to planning and conducting environmentally aware meetings and events" (1996). U.S. Environmental Protection Agency.

http://www.kcb.org/recycgui.html

"Summer Recycling.Guide to recycling at Chicago Summer Festival"
Chicagoako udako jaialdiko hondakin-kudeaketaren kasu praktikoa.

Kanada

http://www.rco.on.ca/millennium.html
"No Waste Millenium Guide" Recycling Council of Ontario
Hondakinik gabeko jaietarako gida praktikoa.

http://www.recycleworks.org/schools/nowaste.html
Recycling and composting Program of San Mateo County
Familiako ospakizunetan sortzen diren hondakinak murrizteko aholkuak.

Katalunia eta Espainiako informazioa

www.uab.es/osha/
Hondakinak minimizatzea Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko jai handian.

www.gobmallorca.com/comuni/991216b.htm
Usadiozko jaietan kontsumo arduratsua egiteko aholkuak.

www.pangea.org/edualter/actualidad/ecologia/residus8.htm
Jaietan hondakinak murrizteari buruzko Europa osoko esperientziak.
campus.uab.es/~2067057/ambient.htm
Balenyako topaketako ingurumen-kudeaketa (Bartzelona).

